Lan arloan euskara sustatzeko HARIXA programa bideratzeko aholkularitza eta laguntza teknikoa eskainiko duen zerbitzua kontratatzeko baldintza teknikoen agiria

1.KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da Bergaran lan arloan euskara sustatzeko abian dagoen HARIXA programa bideratzeko aholkularitza eta laguntza teknikoa jasotzea.

Plegu hauetan zehaztutako baldintzak oinarrizko ezaugarriak dira, eta beraz, esleipendunak guztiak bete behar ditu.

2. IRISMENA

HARIXA programaren baitan elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten 2022ko urrian 38 entitatek, tartean Bergarako Udalak. 2025ean, 5 entitate gehiago batu ziren hitzarmen horretara. Gainera, hitzarmenean honakoa jaso zen:

> *Bergarako Udalak behar diren giza baliabideak jarriko ditu hitzarmenaren dinamizazioaz eta jarraipenaz arduratzeko.*
>
> *Era berean, bestelako laguntza eta zerbitzuak ere eskainiko dizkie hitzarmeneko partaide diren entitateei, honakoak, adibidez:*
>
> - *Lanerako lagungarrien sareko bilgunea, enpresei askotariko baliabideak eskainiko dizkiena: hiztegiak, euskarazko ereduak, praktika onen informazioa…*
> - *Konpromiso bakoitzerako baliabideen gida.*
> - *Euskara ikasi edo praktikatzeko bideak: ulersaioak, mintzalaguna…*
> - *Udalak enpresei eskaintzen dizkien dirulaguntzetan hizkuntza irizpideak txertatzea…*

Hitzarmena kudeatzeko bi lantalde edo organo daude eratuta:

- **Talde Eragilea**. Udalaren eta aholkularitza-enpresaren koordinaziorako gunea da eta bertan lantzen dira Jarraipeneko lan-mahaira proposatzekoak eta han erabakitakoak. Udaleko teknikari eta ordezkari politikoak eta aholkularitza enpresako teknikariak izango dira bertako partaide, eta Hitzarmeneko beste ordezkariren bat ere izan liteke.
- **Jarraipeneko lan-mahaia**. Hitzarmenaren jarraipenaz eta programaren norabidea zehazteaz arduratzen den organoa da. Hitzarmeneko partaide diren enpresetako ordezkariak eta Udalekoak dira bertako partaide.

Kontratu honen bidez, Udalari eta hitzarmeneko partaide diren enpresei hitzarmena bideratzeko aholkularitza eta laguntza teknikoa eskaintzea nahi da.

ESKU740d1c85-6678-4c42-8cd4-7589f66f7b6a

Bergarako Udala

3. EGIN BEHARREKO LANAK

Enpresa esleipendunak honako lanak bideratuko ditu Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuaren gidaritzapean:

1. **Programako lantaldeen kudeaketa**: Talde Eragilea eta Lan-mahaia. Programaren planifikazio, jarraipen eta gidaritzarako eratutako lan-taldeak dinamizatzea, udal-ordezkariaren gidaritzapean: lantalde horien bileretako gai-zerrendak eta proposamenak prestatzea, bileretako aktak jasotzea eta abar. Bileren maiztasuna: Talde Eragilearena, hilero; Lan-mahaiarena 3 hilabetetik behin.
2. **Enpresen helburu komunak identifikatzea eta horiek lortzeko jarduerak proposatu eta bideratzea**, adibidez: enpresentzako hizkuntza irizpideak, Duala euskaraz, elkarren arteko harremanak euskaraz… Era berean, Udalak edo beste entitate batzuek bideratzen dituzten ekimenak zabaldu eta bultzatzea enpresen artean: dirulaguntzak, Berriketan programa…
3. **Hitzarmenaren jarraipen eta dinamizaziorako bisitak enpresetara**. Urtean 2 bisita egingo zaizkie HARIXAko hitzarmenkideei egoeraren berri jasotzeko eta hitzarmena gauzatzeko aholkularitza eta laguntza emateko. Entitateen ezaugarri eta disponibilitatea kontuan hartuta, jarraipen hori modu desberdinetan egin ahal izango da baina zuzeneko bisitari emango zaio lehentasuna. 2025ean 24 enpresetara egin da zuzeneko bisita (enpresen ezinagatik 4-5 gelditu dira bisitatu gabe); hala ere, gainontzekoei ere egin zaie jarraipena. Bisita horien emaitza jasoko da banakako txostenetan eta bai enpresari eta bai Udalari aurkeztuko zaizkio. Guzti horren laburpen bat aurkeztuko da lantaldeen bileretan.
4. **Prestakuntza, tailerrak, dinamikak…** Urtean hiru saio eskainiko zaizkie enpresei, urteko kudeaketa-planean zehazten denari jarraiki, adibidez, era honetako gaiak lantzeko: dirulaguntzak, baliabide teknikoak…
5. **Komunikazioa eta komunitatea sendotzea.** Komunikaziorako eta komunitate-izaera sendotzeko baliabideak planifikatu eta proposatzea eta besteak beste honakoak gauzatzea:
    a. HARIXA programaren webgunea elikatzea, era honetako eduki bat txertatuaz: hitzarmenkideen esperientzia eta praktika onak, hitzarmenkideentzako interesgarriak izan litezkeen laguntza edo baliabideak, hitzarmeneko organoen erabakiak…
    b. Komunitatea sendotzea eta elkarlana. Urtean hitzarmeneko partaide guztientzako ekitaldi bat antolatzea, honako helburuekin, besteak beste: urteko balorazioa eta esperientziak partekatzea, elkarlan aukerak aztertzea, komunitate sentimendua indartzea…
6. **Datu-base eta memoriak**
    a. Enpresen datu-basea osatu eta eguneratzea eta Udalaren esku jartzea: zein enpresarekin egin diren kontaktuak, bakoitzaren hizkuntza-egoeraren gaineko informazioa, gauzatu diren normalizazio ekintzak…
    b. Urte amaieran urteko balorazio-txostena eta hurrengo urteko kudeaketa planaren proposamena aurkeztea. Balorazio-txostenarekin batera, eskuartean izan diren dokumentuak eta euskarriak Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuaren eskura jarriko dira

ESKU740d1c85-6678-4c42-8cd4-7589f66f7b6a

7. **Eskualde mailako koordinazioa**. Debagoieneko euskara planen berri jaso eta haiekin koordinatzea.

4. ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA

Kontratatutako egitasmoen zuzendaritza eta ikuskapena Bergarako Udaleko Euskara departamentuak burutuko du. Hori horrela delarik, esleipendunak behar besteko erraztasuna emango dio departamentu horri zuzendaritza eta ikuskapena egin ahal izan ditzan.

Kontratua indarrean dagoen epean honako konpromisoak hartzen ditu Bergarako Udalak:

a.- Kontratatutako zerbitzuen funtzionamendu egoki baterako kontratistak behar dituen aholkuak ematea.

b.- Lanen zuzendaritza eta kontrola eramatea, Euskara departamentuaren bitartez.

c.- Egitasmoa gauzatzeko udalak egoki ikusten dituen material eta euskarriak (eskuorriak, kartelak…) zerbitzua emango duen enpresaren eskura jartzea.

5. ESPERIENTZIA, GIZA BALIABIDEAK eta HIZKUNTZA

Esleipendunak beharrezkoak diren giza baliabideak jarri beharko ditu plegu honetan zehazten diren lan guztiak betetzeko, eta orokorrean aholkularitza zerbitzua modu egokian emateko.

Gutxieneko dedikazioa: Presentzialki 11 hilabetez (hilabete bateko oporraldiaren etena kontuan hartuta). Beraz, kontratua hasten denetik bukatzen den arte 390 ordu, gutxienez.

Enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntz jarduera arautzeko planen arabera jokatuko du:

Hizkuntza Gaitasuna: Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza-gaitasunei dagokionez.

Kontratuak herritarrekin, zein administrazioarekin, ahozko zein idatzizko harremana izatea eskatzen duenez, Europako Erreferentzia Markoaren C2 gaitasun maila eskatuko da.

6. INGURUMENA

Laneko dokumentuak formatu elektronikoan entregatu behar dira posta elektronikoaren edo zerbitzari baten bidez (dokumentuak deskargatzeko estekak dituztela, edo ftp bidez), edo, bestela, USB edo antzerako euskarriren batean, betiere birgrabagarriak eta irekiak, berriro erabili ahal izateko.

Dokumentuak inprimatzea beharrezkoa bada edo kontratuaren arduradunak hala eskatzen badu (laneko txostenak, bileretako dokumentuak, etab.), adjudikazio-hartzaileak hau egin behar du:

ESKU740d1c85-6678-4c42-8cd4-7589f66f7b6a

Bergarako Udala

- Kontratuaren arduradunarekin adostu zein dokumentu inprimatu behar diren.
- Ahalik eta ale gutxiena inprimatu, beharrei egokituz (bilera bateko partaide-kopurua, etab.), kopiarik ez dadin sobera geratu.
- % 100 birziklatutako papera erabili (% 65, gutxienik, kontsumitu ondokoa) edo baso kudeaketa iraunkorreko edo birziklatutako zuntzen edukia gutxienik % 20koa duen paper birziklatu gabea.
- Ahal den heinean, dokumentuak alde bietan eta zuri-beltzean inprimatu, ahalik eta gutxiena koadernatuta eta plastikozko azalik gabe (errazago birziklatzeko).

EGINBIDEA, lan-eremuan euskara sustatzeko HARIXA programa garatzeko aholkularitza eta laguntza teknikoa kontratatzeko klausula teknikoen agiri hau 2025eko irailaren 8ko dekretu bidez onartu dela jasota uzteko dena.

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan.

IDAZKARIA

ESKU740d1c85-6678-4c42-8cd4-7589f66f7b6a

Pliego de condiciones técnicas para la contratación del servicio de asesoramiento y asistencia técnica para el desarrollo del programa HARIXA de promoción del euskera en el ámbito laboral

1.OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del contrato es recibir asesoramiento y asistencia técnica para el desarrollo del programa HARIXA que se ha implantado en Bergara para la promoción del euskera en el ámbito laboral.

Las condiciones establecidas en los presentes pliegos tienen carácter de fundamentales, por lo que la adjudicataria deberá dar cumplimiento a todas ellas.

2. ALCANCE

En octubre de 2022, 38 entidades, entre ellas el Ayuntamiento de Bergara, suscribieron un convenio de colaboración dentro del programa HARIXA. En el 2025, se han adherido al convenio otros 5. Además, en el convenio se recogía lo siguiente:

> *El Ayuntamiento de Bergara facilitará los recursos humanos necesarios para la dinamización y seguimiento del convenio.*
>
> *Asimismo, prestará también otros apoyos y servicios a las entidades participantes en el convenio, tales como:*
>
> - *Recopilación en red de medios de ayuda para el trabajo, que ofrecerá a las entidades recursos diversos: diccionarios, modelos en euskera, información sobre buenas prácticas...*
> - *Guía de recursos para cada compromiso.*
> - *Vías para el aprendizaje o práctica del euskera: sesiones de comprensión, conversación...*
> - *Incorporación de criterios lingüísticos en las subvenciones que ofrece el ayuntamiento a las entidades...*

Para la gestión del convenio se han constituido dos equipos de trabajo u órganos:

- **Equipo Promotor.** Es un espacio para la coordinación entre el ayuntamiento y la empresa consultora, en el que se trabajan las propuestas dirigidas a la Mesa de Trabajo de Seguimiento, así como los acuerdos que en ella se adopten. Formarán parte del mismo técnicos/as y representantes políticos/as del ayuntamiento, junto con técnicas/os de la empresa consultora, pudiendo acoger también a un/a representante más del Convenio.
- **Mesa de Trabajo de Seguimiento.** Es el órgano encargado de realizar el seguimiento del convenio y determinar el rumbo del programa. Participan en esta mesa representantes del ayuntamiento y de las entidades participantes en el Convenio.

El propósito del presente contrato es ofrecer asesoramiento y asistencia técnica al ayuntamiento y a las entidades participantes para el desarrollo del convenio.

ESKU740d1c85-6678-4c42-8cd4-7589f66f7b6a

Bergarako Udala

3. TRABAJOS A REALIZAR

La empresa adjudicataria, bajo la dirección del Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Bergara, desarrollará los siguientes trabajos:

1. **Gestionar los equipos de trabajo del programa:** el Equipo Promotor y la Mesa de Trabajo. Dinamizar los equipos constituidos para la planificación, seguimiento y liderazgo del programa, bajo la dirección de la representación municipal: elaborar los órdenes del día y las propuestas de las reuniones de los equipos, levantar actas de las sesiones, etc. Periodicidad de las sesiones: Equipo Promotor, mensualmente; Mesa de Trabajo, trimestralmente.
2. **Identificar los objetivos comunes de las entidades y proponer y desarrollar actuaciones para conseguirlos,** tales como criterios lingüísticos para las entidades, Dual en euskera, relacionarse mutuamente en euskera... Asimismo, difundir e impulsar entre las entidades las iniciativas desarrolladas por el ayuntamiento u otras entidades: subvenciones, programa Berriketan...
3. **Visitas a las entidades para seguimiento y dinamización del convenio.** Se realizarán 2 visitas al año a las entidades del convenio HARIXA para recabar información de su situación y prestarles asesoramiento y asistencia para el desarrollo del convenio. Teniendo en cuenta las características y disponibilidad de las entidades, este seguimiento se podrá realizar de diferentes formas, aunque se priorizará la visita directa. En 2025 se ha realizado una visita directa a 24 empresas (por imposibilidad de las mismas se han quedado entre 4 y 5 sin visitar), aunque también se ha realizado un seguimiento al resto. El resultado de las visitas se reflejará en informes individualizados que se presentarán tanto a la entidad como al ayuntamiento. De todo ello se presentará un resumen en las reuniones de los equipos de trabajo.
4. **Formación, talleres, dinámicas...** Se ofrecerá a las entidades tres sesiones al año, de acuerdo con lo establecido en el plan de gestión anual, para tratar temas como, por ejemplo, subvenciones, recursos técnicos...
5. **Comunicación y fortalecimiento de la comunidad.** Planificar y proponer recursos para la comunicación y el fortalecimiento como comunidad, desarrollando entre otras iniciativas las siguientes:
    a. Alimentar la página web del programa HARIXA, incorporando al menos un contenido de este tipo: experiencias y buenas prácticas de los miembros del convenio, apoyos o recursos que puedan ser de su interés, acuerdos de los órganos del convenio...
    b. Fortalecimiento como comunidad y colaboración. Organizar un evento al año para todas las entidades participantes del convenio, con el objetivo, entre otros, de compartir la valoración anual y sus experiencias, analizar posibilidades de colaboración, reforzar el sentimiento de comunidad...
6. **Base de datos y memorias**
    a. Elaborar y actualizar la base de datos de las entidades, poniéndola a disposición del ayuntamiento: entidades con las que se han realizado contactos, información sobre la situación lingüística de cada una de ellas, actuaciones de normalización llevadas a cabo...

ESKU740d1c85-6678-4c42-8cd4-7589f66f7b6a

b. A fin de año presentar el informe de valoración anual y la propuesta del plan de gestión del año siguiente. Junto con el informe de valoración, se pondrán a disposición del Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Bergara los documentos y soportes que se han utilizado.

7. **Coordinación a nivel comarcal.** Recibir información de los planes de euskera del Alto Deba y coordinarse con ellos.

4. DIRECCIÓN Y SUPERVISIÓN

La dirección y supervisión de los proyectos contratados la asumirá el Departamento de Euskera del Ayuntamiento de Bergara. En este sentido, la adjudicataria facilitará a dicho departamento cuanto sea preciso para la realización efectiva de dichas labores.

Durante el plazo de vigencia del contrato, el Ayuntamiento de Bergara se compromete a:

a.- Prestar a la contratista el asesoramiento que precise para el buen funcionamiento de los servicios contratados.

b.- Llevar la dirección y control de los trabajos, a través del Departamento de Euskera.

c.- Poner a disposición de la empresa prestataria del servicio los materiales y soportes (folletos, carteles...) que el ayuntamiento considere adecuados para la ejecución del proyecto.

5. EXPERIENCIA, RECURSOS HUMANOS E IDIOMA

La adjudicataria deberá aportar los recursos humanos necesarios para el cumplimiento de todos los trabajos especificados en el presente pliego y, en general, para la adecuada prestación del servicio de asesoramiento.

Dedicación mínima: Presencialmente durante 11 meses (teniendo en cuenta la interrupción vacacional de un mes). Por lo tanto, un mínimo de 390 horas desde el inicio del contrato hasta su finalización.

La empresa adjudicataria actuará de acuerdo con los planes que regulan la actividad lingüística del ayuntamiento:

Competencia lingüística: En la medida en que mantienen relación con la administración y con terceros, las personas empleadas por la empresa contratada deberán garantizar, en lo que a sus competencias lingüísticas se refiere, unas condiciones similares a las que se exigirían al personal de la propia administración.

Dado que el contrato exige una relación tanto oral como escrita con la ciudadanía y con la Administración, se exigirá el nivel de competencia C2 del Marco Europeo de Referencia.

6. MEDIO AMBIENTE

Los documentos de trabajo deben ser entregados en formato electrónico a través del correo electrónico o de un servidor (con enlaces de descarga de documentos, o mediante ftp) o, en su defecto, en un soporte USB o similar, siempre regrabables y

ESKU740d1c85-6678-4c42-8cd4-7589f66f7b6a

abiertos para su reutilización.

Si fuera necesario imprimir documentos, o si así lo solicitara la persona responsable del contrato (informes de trabajo, documentos de reuniones, etc.), la adjudicataria deberá:

- Acordar con la persona responsable del contrato los documentos que se han de imprimir.
- Imprimir el menor número posible de ejemplares, ajustándose a las necesidades (número de participantes en una sesión, etc.), a fin de que no sobren copias.
- Utilizar papel 100% reciclado (mínimo 65% de postconsumo) o papel no reciclado de gestión forestal sostenible o con un contenido mínimo de 20% de fibras recicladas.
- En la medida de lo posible, imprimir los documentos por ambas caras y en blanco y negro, con la menor encuadernación posible y sin cubiertas de plástico (para facilitar su reciclaje).

DILIGENCIA: Para hacer constar que este pliego de cláusulas técnicas para la contratación del asesoramiento y asistencia técnica para el desarrollo del programa HARIXA para la promoción del euskera en el ámbito laboral ha sido aprobado mediante decreto emitido el día 8 de deptiembre de 2025.

Bergara, a la fecha de la firma electrónica.

LA SECRETARIA

EKS | CSV: ESKU740d1c85-6678-4c42-8cd4-7589f66f7b6a
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07410
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07410